

1994ko ekainak 3

238. zenb.

PRESS

ARRASATE

UNION CERRAJERA

**Etorkizuna
zalantzan**

HERRIEN EUROPAREN ALDE



**eusko
alkartasuna**
Europako abertzaleekin



EUROPAN TINKO LANEAN

Eusko Alkartasunak Europako Herrietako nazionalistekin bat egin du aurreko legegintzalditik hona burutzen ari den lanari jarraipena emateko, ondoko helburu hauek lortzeari begira:

- ★ Pertsonen gehiago arduratuko den Europa bat eratzea, solidarioagoa eta mundu osora irekiagoa izango dena.
- ★ Lehenbailehen GIZARTE EKINTZARAKO PROGRAMA gauzatzea (50 milioi europar pobrezia larrian bizi dira, 17 milioik ez dute lanik eta 30 milioi etxerik gabe daude).
- ★ Ingurugiro Politika askoz ere zorrotzago bat burutzea, eguratsarekiko, lurzoruarekiko eta gai arriskutsuekiko kontrol gehiago duena.
- ★ Europako Herrietako hizkuntza eta kultura guztiak elkarrekin bizi eta garatu daitezela lortzea.
- ★ Ekintza eraginkorrak burutzea Europa zentralizatzaile eta garden-tasun gutxiko horretan, Herrien eta Eskualdeen partaidetza gehiago aitortu eta onar dadin.
- ★ 1996ko erreforman Europa federalaren alde lan egitea, funtzionamendu eraginkor eta demokratikoa ematen saiatuz, batasunaren oinarria herritarrengan eta herriengan egongo litzatekeelarik batipat.
- ★ Fondoen eta Baliabideen funtzionamendua hobetzea, nazionalitate eta eskualde guztietan aurrerabide-iturri berriak sor daitezzen.
- ★ Enplegua ugaritu dadila bultzatzea, dagoen lana banatzen ere ahal-eginduz, eta Lanaren gaineko zergak murriztuz.
- ★ Sektorekako Politikan finkatutako helburuak lortzea (Nekazaritza, Arrantza, Industria, Azpiegiturak, Hezkuntza eta Komunikabideak), lan horretan Eusko Alkartasuna Europako nazionalistekin batera ari delarik.



Europa zuzenago bat eraiki behar dugu, Herrien Europa bat, dagokigun Autodeterminazio eskubidea bideratuko duena, Europako Batasun Politikoaren barne Euskal Herriaren lurralde batasuna eta bere independentzia lor ditzaun.

**EMAN
BOTOA**



**eusko
alkartasuna**

Herrien Europaren

Gaurko mendeak ekarri digu

Del Tesok Egunen gorpulean (JAKIN 81./ 133 or.) dionez, telebisiok haur eta gazteengan duen isladaz aritu ziren bera eta bestetzu ETBko saio batean.

“Beharrezkoa, komenigarria sikiera al litzateke nolabaiteko kontrola ezartzea umeak telebisiotik babesteko?” *Begoñaren* aburuan ekoizpenak erosi edo sortzeko unean telebisiok kode deontologikoa exigitzen zietenek, eskakizun horren azpian ala atzean haurren ezagupenik eza erakusten zuten.

Neska honentzat ez bezala, niretzako gaurko gaztetxoak ez dira gu baino sanoagoak, ez gu baino listoagoak, ezta gu baino osasuntsuagoak ere. Ez dut uste umeek ondotxo bereizten dutenik zeluloidearen gezur gozo edo gazia errealitateko egia mingarritik, nahiz eta telebistak ez duen zeluloiderik erabiltzen eta hori *Begoña del Tesok* badaki.

Cohen-Séaten diagramen arabera, telebistak sortzen duen partaidetza eta lilura, zenbait kasu patologikotan hipnosia, nire ustetan, errealitatea eta fikzioaren arteko bereizketa ezinezko bilakatzeko bide zuzena da.

Irudiaren bitartezko heziketa, gizarte absolutista eta paternalista guztien ezaugarri tipikoa izan da Egipto zaharreko sasoietatik Ertarora bitartean, *Umberto Ecoren* esantzan. Irudia, dio, kultur elaborazioaren bitartez gauzatutako konklusio ikusgarri eta ez-bairik gabekoaren laburpena baino ez da; idatzizko berba darabilen elaborazio kultu-

rala elite gidariarena ordea, azken irudia masarentzat eraikia delarik.

“Beharrezkoa, komenigarria sikiera al litzateke nolabaiteko kontrola ezartzea umeak telebisiotik babesteko?”

“Bazeuden, jakina, horren alde gogor aritu zirenak. Zentsura hitza ez zuten erabiltzen, jakina, hitz zakarra baita...” dio *Begoña del Tesokoak*, baina nik gehiago maite dut Eco, beste gauza batzuren artean askozaz gehiago dakielako, eta berak bezala pentsatzen dut irudien harrera, informazio “idatzien” harrera aberatsez konpentsatu beharra dagoela, publikoak “desbalidintzatzeko”. Haur zein nagusiei, arrazoa du edo zuen *Constantino Rome-*


rok, telebista ikusten erakutsi egin behar zaie. Telebistari ez zaiola behar baino gehiago begiratu behar erakutsi; aparailuaren aurrean euren borondatez noiz ez dauden jakiten ikasi; hipnosia arriskutsua dela ulertu eragin. *Aprenda a ver la televisión* hura, finean.

Zera esan omen zuen ikusle batek behin: “Egia diot, ez dut maite telebista hau, askotan aspergarria den telebista hau. Sarri, pantaila aurrean nauka orduak eta orduak, beste egitekorik ugari dudala”.

Telebista, gizakia bera bezain arriskutsua izan liteke kontrolik gabe edo gehiegizko kontrolaz.

Begoñak gauza bakar batean badu, baina, arrazoa. Nik neuk ere ez nieke sekula haurrei telebista itzaliko.

JON IÑAKI LASA




Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalak Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Laso, Xabier Letona, Karmele Perez, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Anton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maitte Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Legelagutza:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo zentzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Agustín Arregi Laso



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE


HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Gazteluondoko Jaia: Memoria

Maiatzak 5 da eta gure tutorea gelara sartzen da, eta hau aditzera ematen digu: hilak 12an Gazteluondo auzoko jaiak izango dira, guri lan zailena tokatu zaigu, "Krokis" bat egin behar dugu. Beraz, gure gela lau taldetan banatuko dugu. Ingo taldeak: Santa Barbara kokatu beharko du; 2. taldeak: zuhaitzak, edifizioak, taberna, mahiak...; 3. taldeak: margotu; 4. taldeak: detaileak eta prest jarri. Ea ba, taldeak egin ditzagun...

Lehenengo gauza egin behar genuena, bakoitzak folio bat hartu eta Santa Barbarara joan ginen, zikinean, "krokis" bat egitera (bakoitzak berea).
Bukatu ondoren, andereñoak krokis denak bildu zituen krokislari onenen artean aukeraketa bat egiteko.
Hilak 6tik 12ra "jo ta ke" ibili ginen ilusio handiz krokis zoragarri bat egiteko as-

moz.
Bukatu genuen, bai! Maiatzaren 11an eta benetan ikusgarria geratu zen. Andereñoak plastifikatu eta, Jokinen laguntzari esker, krokisa tabla baten sartu eta azkenean bukatu genuen zorioneko krokisa. Azkenean heldu da espero genuen eguna! : Maiatzak 12a.


Eta hona hemen egitaraua:
9.00: Sarrera
9.00 - 9.30: Krokisak Santa Barbaran jarri.
10.30 - 11.00: Eskolurreko haurrak Santa Barbarara ekarri.
11.00 - 11.45: Memoria hau egin.
15.00 - 15.30: Kanpa apaindu, txukun-txukun.
15.30 - 16.00; Ingo eta 2. mailakoen antzerki polita ikusi.

16.00-16.30: Dantza eta txokolatada.
Gero etxera joan gara, baina oraindik festaren zapore goxoa daukagu ahoan.
JON BEREZIBAR ETA IBAI MENDIARATX, S. F. X.KO OHOKO 6. B

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

Zelan ikusten duzu atzeratuen integrazioa?




Pablo Zubillaga
Euskadiko Kutxako
langilea
(47 urte)

Poliki-poliki integratuaz doaz, baina oraindik badago zer egin. Adibidez, gizartea mentalizatu egin behar da.



Eider Etxaniz
Ikaslea
(17 urte)

Beharbada atzeratuak apur bat baztertuta daude, baina gero eta jende gehiago dago eurei laguntzeko gertu.



Leandro Azkoaga
Jubilatua
(70 urte)

Orain arte, atzeratuei laguntzeaz batez ere familiar-tekoak arduratu dira. Horregatik, besteok ere zeozer egin beharko genukela uste dut.



Mari Karmen Gorosabel
Etxekoandrea
(46 urte)

Integrazioan asko aurreratu dela iruditzen zait. Orain badute lanerako aukera eta gainera, ez dira lehen bezala etxean sartuta egoten. Hala ere, oraindik badago zer egin.



Luis Zabala
Dendaria
(36 urte)

Egoera zein den ulertzen hasi gara iruditzen zait, gero eta gehiago laguntzen baitzaie. Gu bezalakoak dira eta ez dira baztertu behar.



Edurne Otxoa
Ikaslea
(17 urte)

Erabateko integrazioa lortzeko asko falta da. Baina ondo egongo litzateke besterik gabe integratzea, besteok bezala, pertsonak baitira.



Arantxa San Jose
Pentsionista
(40 urte)

Niri oso ondo iruditzen zait atzeratuek integratzeko aukera izatea. Baina zaila dela uste dut, horregatik, ahalegin handiagoa egin beharko genuke.



Gabriel Gonzalez
Jubilatua
(68 urte)

Atzeratuak zenbat eta gehiago integratu, guztiontzat izango da hobea. Egia da orain arte gutxi egin dela baina azkenaldian, zerbait egiten hasi gara.



Umezaintza

Datorren ikasturterako
94AN LAIOTAKO HAURRENTZAKO PLAZAK LIBRE

79 01 02

SAN ANDRES, 9

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualariora 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

Larunbata 4
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

Igandea 5
 Egunez 22.00ak arte: Español, Iturriotz.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

Astelehena 6
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

Asteartea 7
 Egunez 22.00ak arte: Inzar, Erguin.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Asteazkena 8
 Egunez 22.00ak arte: Amezua, Sta. Marina.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Osteguna 9
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

3 OSTIRALA

ATZERATUEN ASTEA

Arrasate musikal eta Goikobalu abesbatzaren kontzertua, Amaia antzokian 10etan. Dohainik.

4 LARUNBATA

ZINEA

"Geronimo" 5etan eta "Atrapado por su pasado" 7.30etan eta 10etan.

ATZERATUEN ASTEA

Txirta taldearekin antzerkia, Amaia antzokian 10.30etan. Dohainik.

KIROL IHARDUERAK

San Viator, Eskola Politeknikoa, San Frantzisko Xabier eta Almen Ikastoletako kirol arduradunek ikastetxe ezberdinen arteko kirol ihardunaldi bat antolatu dute, goizeko 9etan Almen ikastolako kirol instalazioetan. Egingo diren kirolak: futbola, saskibaloia, boleibola eta binakako esku pilota.

HERRI EGUNA

Arrasateko Herri Batasunak "herri eguna" antolatu du. Ordu batean, herri poteo eta trikitixa. 2.30etan herri bazkaria Monterronen eta 7etan haurjolasak Sebero Altubean.

KOTXE ZAHARREN IBILALDIA

"V. Loiola Rallye" izango da, Talleres Ola-k antolatuta. Kotxe deportiboak ikusteko aukera. Arrasateetik 2etan pasatuko dira.

5 IGANDEA

ZINEA

"Geronimo" 5etan eta "Atrapado por su pasado" 7.30etan eta 10etan.

ATZERATUEN EGUNA

12.30etan kalejira trikitilariekin. 2.30etan bazkaria Karkabal elkartearen. 5etan jaialdia Monterronen. 6.30etan "Blues" emanaldia Monterronen.

BARDEETARA IRTEERA

Goizeko 8.30etan Portaloitik abiatuko dira Eki taldekoak.

ESKORIATZA-ARRASATE KROSA

Arrasate Atletiko taldeak antolatuta eta Arrasate Kirolak-ek babestuta, Eskoriatza-Arrasate krosa. Ibilbidea Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateetik igaroko da. Guztira 7.100 metro. Irteera: Eskoriatzako plazan 12.30etan eta Arrasatera ordubata inguruan helduko dira.

NOBELA LEHIAKETA

Igartza abentura eta misteriozko nobela lehiaketarako deialdia. Pertsona guztiak izan daitezke partaide, adina eta nazionalitatea kontutan hartu gabe. Idazlanak, jatorriz euskaraz idatziak, inoiz argitara eman gabeak eta beste inolako sariketatan saritu gabeak izango dira. Idazlanen gaia librea den arren, guztien ardatzak abentura edo misteriozko kontakizuna izan beharko du. Lanak irailaren 30eko 13etarako aurkeztu edo postaz jaso beharko dira, Beasaingo Udaletxeko Euskara zerbitzuan.

ERAKUSKETA

Monterronen ekainaren 9a arte Arrasateko Jubilatuen etxeetan eginiko Eskulanen Erakusketa. Ordutegia: egunero betatik 8a arte eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta betatik 8etara.



V. LOIOLA RALLYE-A

Igandean Talleres Olak antolatuta, "V. Loiola Rallye" izango dugu. Kotxe klasiko deportiboek hartuko dute parte. Arrasateetik 2etan pasatuko da.

6 ASTELEHENA**ZINEA**

"Atrapado por su pasado" 7etan eta 9.30etan.

ZAHARREN ASTEA

Ikastolako abesbatza eta txistulariak 6etatik 7.30etara, Iturbide Egoitzan.

7 ASTEARTEA**ZINEA**

"Atrapado por su pasado" 7etan eta 9.30etan.

ZAHARREN ASTEA

Txatxipel taldea 6etatik 7.30etara, Iturbide Egoitzan.

TANBORRADA

Nagusien tanborradako entsailuak hasiko dira 8.30etatik aurrera, Frantziskotarren Kalistroetan.

8 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

"Sexualitatea eta emakumea" 4etan, Sta Teresa kalea 12an. Emalea M^a Karmen Zubillaga, psikologa-sexologoa. Sarrera dohainik.

9 OSTEGUNA**ZINEA**

"Corazon Salvaje" Amaia antzokian, 9.30etan. Sarrera 300 pta eta gazte txartelarekin 250 pta.

ZAHARREN ASTEA

Goizean Jose M. Astigarraga parroko jaunaren hitzaldia. 6etatik 7.30etara "Zabale Anaiak" trikitilarien emanaldia, hiru dantzari bikoterekin batera, Iturbide Egoitzan.

ESKORIATZA-ARRASATE KROSA

Igandean Eskoriatza-Arrasate krosa korrituko da. Goizeko 12.30etan Eskoriatzatik irtengo dira korrikalariak eta 7 Km. egin ondoren Arrasateko plazan izango da helmuga.

**HIZKUNTZ EGONALDIAK**

Uztailaren 16tik 30era, Diputazioak ingelesa ikasteko egonaldia antolatu du, Segurako aterpetxean. Maila desberdinak. Matrikula 40.000 ptakoa da. Informazio gehiago Arrasateko gazteentzako Informazio Bulegoan.

BIZIKLETA FESTA

Aurtengo Bizikleta Festa, ekainaren 11n izango da Donostiako belodromoan. Bertan, Europa mailako txirridulari onentsuenek hartuko dute parte, kirola, ikuskizuna eta sariak nagusi izango dira.

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Haur dantzarien eguna antolatu da ekainaren 19rako. Egun horretan Arrasatera haur asko etorriko da eta guztiek herriko familietan bazkalduko dute. Hori dela eta, haur horiek etxera gonbidatu nahi baldin badituzue, AEDn edo HIRE liburudendan eman dezakezue izena.

MENDI IRTEERA

Besaide Mendizale Elkarteak Amurriotogorri-Unginora irteera antolatu du ekainaren 12rako, goizeko 7etan. Izene-matea: ekainaren 7an, 8an, eta 9an, 7.30etatik 8.30etara Besaide-ren Egoitzan.

**ZAHARREN ASTEA**

Ekainaren 6tik 12ra zaharren astea. Ekintza ugari egongo dira 6etatik 7.30etara Iturbide Egoitzan.

HITZALDIA

"Menopausia" 4etan Sta. Teresan Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, ekainaren 16an. Emalea Astola sendagile ginekologoa. Edozein informaziotarako 790459 zenbakira deitu.

AHIZPE-CIM-EKO BEKAK

Ahizpe-Cim hizkuntz eskolak beka eskatzeko epea ekainaren 10era arte zabalik dagoela jakinarazi nahi die ikasleak. Ikasurte honetan 6 beka banatuko dira. Beka hauek jaso nahi badituzu eskatu inprimakia idazkari-tzan.

EUSKARAZ PUNTATIK PUNTARA

Deba Garaiko AEK euskaltegiak ikastaroak antolatu ditu uztailerako. Maila guztiak eta EGako klaseak emango dira. Iraupena 3, 4 eta 5 ordu-takoak. Matrikula epea zabalik ekainaren 13tik 29ra.

“Hauxe da egoera. Beldur naiz krisiak ez ote gaituen behartu enpleguaren defentsara mugatzera, alde batera utzaraziz agian asetzen hasiak ginen beste premia batzuk. Gaur egun, partaidetza edo informazio-maila jeitsi egin da, aginte-organoak urrutirako daude, kooperatibarekiko identifikazioa txikiagoa da. Gidari eta gidatuen arteko tartea handitu egin da, batzuen eta besteen arteko dibortzioa areagotu. Baita, beraz, satizfakziorik eza, kritika erraza, marmarrak eta deskalifikazioak ere. Ez, hau ez doa ondo... baina badu konponbiderik. Egungo merkatu eta koiunturaren egoera txarraren aurrean, batu egin behar ditugu borondateak, lankidetzan elkarturik aurre egin etorkizunari. Elkarlana oraintxe dugu beharrezkoena”.

Jose Ramon Elorzak



“Arrasatek, herri bezala, ez du sekula sozioekonomikoki duen garrantzia kapitalizatu; horra hor adibide argigarria, munduko edozein bazterretatik etorrira kooperatibak bisitatzan dituen negozio-gizonarena: lo egitera Gasteiza joaten da, Arrasate bat ere ezagutu barik. (...)

Europar eta Estatu Batuetan denda txikiak itzultzen ari diren bitartean, hemen, merkataritzari dagokionez 20 urteko atzerapena dugunez, saltoki handiak bultzatzen dira. (...) Baina horrek hamabost urte barru herrien desertizazioa ekarriko du eta lan merkatuari zela eragiten dioten ere aztertu beharko litzateke, denbora guztian denden ordutegiei buruz hitz egiten egon barik, gairik inportanteena hori balitz bezala. (...)

Dendarien bidez, industriaren bitartez bezala, herriarentzat aberastasuna sor daiteke, aberastasuna transmititzeko kate bat gara eta. Merkataritzari ez zaio sekula ikuspuntu horretatik begiratu, baina lanpostuak sor ditzakegu. Gaur egun Arrasaten ia 700 lanpostu ditu komertzioak (ostalaritza eta zerbitzuak alboratu zitza)”

Jesus Uriartek

94-5-26

EL CORREO


Zelan funtzionatzen du Europako Elkarteak eta zein da Legebiltzarraren eragina?

Europako Elkarteak ez da estatua, beste zerbait da, gobernuak antolatutako erakundea da. Beraz, bere funtzionamendua ez da estatuena bezalakoa.

Europako Elkartearen barruan erakunde desberdinak daude eta gobernuen funtzioa betetzen dute. Batetik ministroen kontseilua dago, erabakiak hartu eta legeak egiteko. Bestetik komisioa, ministroen kontseiluak hartzen dituen erabakiak martxan jartzeaz arduratzen dena. Azkenik, sei hilabetero gobernuak batzen dira aurrerantzean jarraitu beharreko

ardatz politikoa zein izango den zehazteko. Egia esan, legebiltzarraren papera sinbolikoa izan da, orain arte ahalmen txikia izan du eta aurrerantzean ahalmen handiagoa eman nahi zaio. Labur esanda, aurrekontuak atzera botatzeko eta kontrol lana egiteko ahalmena izan du. Jakina, aginte moralak ere badu, berak esaten duena kontutan hartzen da.

Bestalde, garbi dago Europako Elkartearen indarra eta agintea dutenak estatuak direla. Legebiltzarrerako distrotoak estatua kontutan izanda antolatzen dira, beraz, erregioen aurrean estatuaren filosofia horrek garrantzia du. Baina ezin da ukatu Europaren eragina handia dela. Hau da, nekazaritza, arrantza eta beste hainbat arlotan erabakiak hartzen dira eta horiek eragina izaten dute gugan. Urruti geratzen dela uste da, baina han erabakitzen denak gugan ere badu eragina.



Juanjo San Miguel
Euskadi Irratiko Nazioarte Saileko kazetaria

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

77 08 15

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

**M
I
T
A
R
T
E**

Nekazalturismoa
Etxeko berezitasunak & Euskal janariak & menua
edo karta & Mendiko irteerak & Urkulun pasioak &
eta gaua iristen denean... logelak!

Areantza auzoa. Tfnoa: 79 17 51

**G
A
R
A
I**

EAren mitin afaria.

Joan den ostiralean, mitin afaria egin zuen EA alderdiak. Mitin afarian, Jose Julian Irizar, Zumarragako alkatea eta EAko Gipuzkoako burua izan zen. Jose Julian Irizarrek azaldu zuenez Europan, Euskal-Herria bertakoek bakarrik defenda dezakete. Gainera, EArena bezalako ikuspuntu abertzale eta aurrerakoia beharrezkoa dela azpimarratu zuen.



Protesta ekintzak

Zapatu arratsaldean, ezezagun batzuk protesta ekintzak burutu zituzten Inemeko lokalen aurka. Inemeko sarreran, satsa zabaldu eta komun bat ere jarri zuten. Inguruan, berriz, langabeziaren inguruko eta Ertzantzaren aurkako pintadak egin zituzten. Pintadak ez zituzten sinatu, baina nork egin dituen ikertzen ari da Ertzantza.

Kirol Proiektuaren akabera

Zapatuan Arrasate eta Aramaio bitartean egin zen bizikleta martxaz, eman zitzaion bukaera Arrasate Kirol Proiektuaren urteko ekitaldiari. Azaroan hasi zen programa horretan, herriko ikastetxe publiko, pribatu eta Aramaixoko San Martin eskolakoek hartu dute parte. Helburua, kirolaren bidez haurra- ren bizi kalitatea hobetzea da. Domekan egin zen ekintzak izan zuen arrakasta ikusirik, 300 eta 400 ume inguruk parte hartu baitzuten, bizikleta martxa urteroko ekintza bihurtu nahi dute antolatzaileek. Bukatzeko eta udan ere txikienek kirola egiten jarrai dezaten, amaierako ekitaldian kirolarekin erlazionatu- tako 42 sari zozkatu ziren.

Azoka, domekan bukatu zen. Liburu saltzaileek adierazi dutenez, salmenta ez da oso ona izan.

Ikerketaren aurkezpena

LKSk herriko merkatari- tzari buruz egin berri duen ikerketaren azalpena egin zuen Ibai Artek joan den ostegunean. Merkatarien elkartearen esanetan, ikerketa egitea oso positiboa izan da. Azterketan esaten dena kontutan izanda, profesionalizatuz joan behar dutela, baina hirigintza mailan ere hobekuntzak egin behar direla esan zuten.

Epaiketa

Asteazkenean Iban Ayesa, 26 urteko intsumiso arrasatearra epaitu zuten Donostian. Fiskalak, 18 hilabetetako zigorra eskatu

zuen Ayesarentzat. Epaike- tan, berriz, intsumisoak ez zuen tribunala errekonozitu. Intsumiso horri elkartasuna adierazteko, kontzentrazioa egin zen asteartean Antimi- litaristek deituta.

Liburu azokaren amaiera

Euskadiko liburu azoken batzordeak antolatuta eta Arrasateko Udalaren laguntzaz aste osoan zehar zabalik izan den Liburu

JAIOTZAK

- Aintzane Rodriguez Poza. Maia- tzaren 23an.

EZKONTZAK

- Francisco Jesus Maiztegi Ro- mero & M^o Karmen Gomez Tubi- lla. Maiatzaren 28an. Zibilez.
- Benigno Rodriguez Marcos & M^o Soledad Alonso Martin. 28an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Juliana Gisasola Alkorta. Maia- tzaren 25ean. 87 urte.
- Iruñe Zuazola Azurmendi. 23an. 34 urte.
- Fermin Lopez Sanchez. 29an. 65 urte.
- Antonia Conti Jimenez. 30ean. 82 urte.

HERRI BATASUNAren

HERRI EGUNA

EKAINAK

4


LARUNBATA

1etan: Poteo herrikoia, Trikitixa...

2,30etan: Bazkari herrikoia Monterronen (Txantelak hatz txakernan)

Arrataldeko 7etan: Haur jolasak Sebero Altuben

**ANIMA ZATEZI!
BOZKATU ABERTZALE,
HBri!**



MIKEL OLABE*

Defentsa aktiboa

Arrasateko ingurune naturalak ahal direnik eta ondoen mantentzeko, Besaide M.Eko lagunek euren mendiko aste barruan "mendiak eta ingurugiroa" mahaingurua prestatu zuten. Nire ustez, interesgarria. Ondoren datorrenak badauka zerikusirik han esandakoarekin.

Mendeetan zehar gizakiak aldaketa nabariak ezarri dizkio Naturari. Garai batean egiten ziren aldaketak nahiko integratuak zeuden, geroztik ez da horrela gertatu. Baserri inguruetako hesi eta zuhaitzak, Urbia bezalako zelai inguruak edo eta Pirineo eta Alpeak, ez dira ekosistema naturalak, baina, hala eta guztiz ere, balio ekologiko handia dute.

Iraultza industrialaren eskutik, hasieran nahiko poliki bazen ere, batez ere hirurogeiko hamarkadaren ostetik eman diren garapen motak, Euskal Herri osoari arazo larriak ekarri dizkio. Etxe eta lantokiz bete zen gure Herria,

batzuk besteen gainean inongo antolamendurik gabe; erre-kak, lurra eta atmosfera guztiz kutsatu ziren, eta, garapen eredu hori zela eta, batzuk aberastu ere egin ziren.

Mendietako egoera ez da hobe, pinuz betetzen dira gure mendiak, gune naturaletan izugarritzko inpaktua duten harrobiak zabaltzen dira, baserriak lagatzen dira, eta, herrialde batzuetan nekazaritza intentsiboa indartzen da... Aipaturiko garapen eredu berbera jarraitzen da bietan: pinuak; etxeak, lantokiak eta papera egiteko behar dira, harrobiak; etxe eta errepideak egiteko...

.....
Gure mendien egoera konpontzeko garaia heldu da.

Baina, gure mendien egoera konpontzeko garaia heldu da, horretarako arazoak aipatzea, beharrezkotzat jotzen dut:

Parke natural eta beste gune berezi batzuen babesaren eztabaida, ez da pista eta antena gehiago behar, ehiza eta honen ondorioak mendian kontrolatu, gaurko pinuen monokultibotik dibertsifikaziora nola jo erabaki, harrobien arazo larria konpondu, suteak kontrolatu, mendian ibiltzen diren ibilgailu motordunentzat araudiak jarri, nekazaritzaren inpaktua gutxitu, zaborren kontrola... guzti hori bete beharra dago.

Ekintza bereziak proposatzeko, pentsamoldeak landu eta aldatu behar dira. Neurrien artean, batzuk, orokorrrak eta pixkanaka egitekoak dira, basogintzan erabiltzen diren makina handiak urrituko dituen garapen eredu sostengatua ez da edozein modutan lortzen, seguraski gure bizitzan aldakuntza gogorak eskatuko lituzke. Horrelako kontsumo maila jeistetik hasi eta dieta aldatzeraino. Baina, bitartean zer konpondua badaukagu. Instituzioei, interesatuan partaidetzarekin egindako lege berriak eskatu behar harko zaizkie, bai, municipal, herrialde edo komunitate autonomokoei. Aldi berean, mendi talde, baserri eta ekologisten artean hasia dugun lanari jarraipena eman behar zaiolakoan nago. Besaidereana bezalako ekimenak bultzatzea ere ondo egongo litzateke. Guzti horri defentsa aktiboa deritzot.

EKI

JOSE RAMON ELORTZA

USTEAK USTE

NORA GOAZ?

Hauteskundeak berriz ere. Demokraziak duen gauza garrantzitsuenetakoa, zalantza gabe: agintariak izendatzeko herritarrok dugun aukera. Demokrazia, askatasuna, zuzentasuna, egia, herri-partizipazioa, gizartearen aldeko lana...

Hitz politikak, bai, baina balio gabekoak errealitate bihurtzen ez badira, errealitatean beste zerbaitekusi ezker. Hitz egitea, gauza bat da; hitz hori betetzea, beste bat. Pertsonak tartean daudenez gero, jakin badakigu ez dela batere erraza izaten politika munduan jokaera garbi, zuzen eta zintzoak aurkitzea. Politikari onak behar dira, bai, baina ez edonor: herrian eginikoak, goi mailako politikan sartu aurretik herriaren alde lan egiteko gai direla erakutsi eta herritarren konfidantza irabazita duten horietakoak. Konfidantza hori, zoritxarrez, ez dago oso zutik azkenengo hilabete hauetan. Puntu asko galdu dute gure politikariek. Gizarteak ez du, inola ere, lehen zuen konfidantza hura. Baina, ez diezaigun honi edo besteari errua bota, denok baikara errudunak. Ez dugu denon artean gizarte berekoi eta faltsu hau eraiki? Gertatzen ari zaiguna ez da kasualitate bat, ondorio bat baizik. Zer pentsatuko ote dute gure gazteek...! Hau da eman nahi genien etorkizuna? Nora goaz?

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 08 15**

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferreries, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Atzeratuen astearen helburua, atzeratuen integrazioa bultzatzea da.

Atzeratuak, urtetik urtera protagonismoa hartuz

Bigarren urtez, atzeratuen astea ospatu da. Aurtengoa, gainera, antolatzen den hamargarren aldia izango da. Jubilatuta eta beste talde batzuentzat ekintza bereziak antolatzen zirela baina atzeratuentzat ezer ez zela egiten ikusirik, orain dela hamar urte atzeratuentzako egun berezia antolatzen hasi ziren SUDC batzordekoak. Urtetik urtera egun hori indarra hartuz joan da eta iaz, egun bakar bat beharrean, aste osoa antolatzeari ekin zioten. Iazko arrakasta ikusirik, aurten ere atzeratuen astea egin da. Antolatzaileen asmoa, ekintza guzti horien bidez jendea gai horren inguruan kontzientziatzea da; gizarteak atzeratuei buruz duen iritzia aldatzea lortu nahi dute batez ere. Gainera, aurrerantzean ekintza gehiago antolatuko ei dute.

Olatz Etxabe, Udaletxeko gizarte lagun-

tzaileak zehaztu digunez, Arrasaten 74 atzeratu daude. Talde horretan, mota desberdineko arazoak dituzten atzeratuak sartzen dira. Horiematik 16k Gureak tailerretan egiten dute lan eta beste 3 sartzekotan dira; beste tailer batzuetan 6 ari dira, 4 Santa Agedan daude, eskola berezietan 2, Arrasateko ikastetxetan 16, 3 Diputazioaren zentruetan eta 22 etxean.

Atzeratuei Diputazioak ematen die laguntza zuzenean. Arrasateko udalak trami-teak bakarrik egiten ditu, baina hala ere udaletxeak informazioa ematen du eta behar-erak ere jasotzen ditu. Olatz Etxabek zehaztu digunez, jakinaren gainean daude atzeratuek zein laguntza mota jaso dezaketen, baina hori zehazten duena Gipuzkoako Diputazioa izaten da.

Deba Ibaia aztertzer

Larunbatean, Deba Ibaia zein egoeratan dagoen aztertuko dute Orkatz taldeko hainbat arduradun eta neska mutilek. Musakola inguruan dagoen errekatxora hurbilduta, erreka eta inguruak zelan dauden aztertuko dituzte. Gainera, datuak ere hartu baharko dituzte eta horren ostean, ikusitakoari buruzko informea egingo dute.

Euskal Herriko ibaien alde sentsibilizatzeko eratu den "Topagune" izeneko koordinakundeak antolatuta du ekintza hori. Koordinakunde horren barruan dago Udalako Ingurugiro Eskola, eta bera izango da larunbateko ekintza aurrera eramateaz arduratuko dena. Ibaia buruzko ingurugiroa gaitzat harturik "Ibaialde" izeneko programa eratu du Topagunek eta seguraski udazkenean emango zaio hasiera proiektu horri. Ibaialde programa ikastetxe eta astialdirako taldeei zuzendurik egongo da.


Hala ere, eta igandean Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna dela kontutan izanda, Arrasatekoaren antzeko ekintza puntualak egingo dira Euskal Herriko beste hainbat tokitan ere. Zapatuan herrian egingo den ekintzan Orkatz taldeko 10 eta 11 urte bitarteko hamabost bat gazte izango dira. Goizeko 11etan Zigarrolan elkartuko dira txangoari hasiera emateko.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 25 60
OÑATI





Gaztetxoentzat sexualitateari buruzko tailerra antolatuko da.

“Beharrezkoa da Hiesari buruz informatzen jarraitzea”

Deba Garaiko Hies Ekimenak prentsaurrekoa eman du ostiralean, aurrerantzean egingo dituzten ekintzak iragartzeko. Ekintzen helburua, Hies gaisotasunaren inguruan hezi, informatu eta laguntza ematea da.

Heziketari zuzendurik, sexualitateari buruzko tailerrak eratu dituzte eta seguruenik Arrasaten udazkenean egingo dira. Hala ere, Hies Ekimenekoen ustez, ikastaro hori ematea ikastetxeen ardura izan beharko litzateke. Bestetik, gaisoei laguntza emateaz arduratzen den taldearentzat lokala eta laguntza ematen jarraituko dute eta gaisoen

familiartekoentzat ere txokoren bat bilatzen ari direla aurreratu dute. Bukatzeko, Deba Garaiko herri desberdinetan astebeteko jardunaldiak egingo dira. Jardunaldi horietan, hitzaldi, bideo emanaldi, erakusketa eta filmeak izango dira.

Hies Ekimenekoen esanetan, “beharrezkoa da Hiesaren inguruan informazio gehiago ematen jarraitzea, oraindik ere jendeak gaisotasun hori hartu egiten baitu. Era berean, gaisotasuna normalizatu eta ahal den eta dramatismo txikienaz aurre egin behar zaio”.

Seinalizazioa

- Errepidetan eta autopis-
- tetako irteera tokietan
- Arrasateko herria seinaliza-
- tzeko eskaria bidalia zuen
- Diputazioko errepede
- zuzendaritza nagusira,
- Arrasateko Udalak. Dagoe-
- neko Diputazioak bidali du
- erantzuna eta eskaria
- Europistasi zuzendu behar
- zaiola adierazi du.

Arrasaterako dirurik ez

Diputazioak ez zuen kirol ekipamenduen planean Arrasaterako dirulaguntzarik ematea aurrikusi. Erabaki hori behin-behinekoa zenez, udalak idatzi bat bidali zuen erabaki hori aldatzeko eskatuz. Hala ere, dirurik ez dagoela eta, Diputazioaren azken erabakian ez da hasierakoa aldatu. Udalak, bere aldetik, ez du erabaki hori ulertzen, Mojategin atletismo pista egiteko lurak erosten bazituen instalazio hori egiteko diruguntza emango ziola esan baitzion Diputazioak. Horregatik, Arrasateko Udalak azalpenak eskatuz gutun bat bidaliko du berriz Diputazioziora.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



JOSU

TXOKIATEGA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02



Arrasate izan da era horretako hitzarmena sinatu duen lehen udala.

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmena sinatu dute

Eusko Ikaskuntzaren eta Arrasateko udalaren arteko hitzarmena sinatu zen astear- tean; hitzarmen horren arabera, Arrasateko Udalak bazkide ongile gisa 250.000 ptako kuota ordainduko du eta kuotaren truke, argitalpen bilduma osoa eta urtero publikatzen dituen liburuak eskainiko dizkio udalari Eusko Ikaskuntzak.

Baina horretaz gain, elkarteak urtean behin antolatzen duen erakusketa ibiltaria Arrasatera ekarriko da irailean. Bestalde, hurrengo aurrekontuetan Arrasateko udalak kuota hori 700.000 ptara igoko balu, Eusko Ikaskuntzak "Fuentes Documentales del Pais

Vasco" izeneko bilduman Arrasateko udal artxibategiari buruzko II. tomoa argitaratuko luke.

Arrasatekoa izan da era horretako hitzarmena sinatu duen lehen udala eta beste herri jakin batzuetakoek ere sinatuko dute aurki. Hitzarmena sinatzeko Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, Gregorio Monreal eta Jose Mari Velez de Mendizabal, gerentea, etorri ziren. Eusko Ikaskuntzako lehendakariak azaldu zuenez, "udalekin egingo diren hitzarmenen bidez, Eusko Ikaskuntzatik ekoizten diren ekintza desberdinei aukera handiagoa eman nahi zaie".

Araba Euskaraz

Ekainaren 19an La Puebla de la Barcan izango den Araba Euskaraz laguntzeko, helduak, kuadrillak edo familiak behar dira. Laguntzeko prest daudenek, bezperatik zirkuitua montatzen lagundu eta jai egunean beste lantxo batzuk egin beharko dituzte. Interesatuok jarri harremanetan lehenbait lehen AEDrekin. Tlf: 795446 edo 771228 zenbakietan.

Udal Plenoa

Ostiralean, eguerdiko ordu batean, zen egitekoa udal plenoa. Pleno hori gai bakarra erabakitze deitu zen, hain zuzen ere, udalaren titulartasunekoak diren zenbait toki garbitzeko adjudikazio lehiaketa zabaltzeko. Plenoan, baldintza tekniko, ekonomiko eta juridikoen plegua ontzat eman beharko ziren. Orain arte Auzo Lagunek izan du toki horiek garbitzeko ardura eta enpresa horri kontratua bukatu zaiolako irekiko da lehiaketa. Udalaren titulartasunekoak Monterroneko parkea eta horrelako beste toki batzuk ere badira, bulegoetz gain.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte


TfNOA: 79 19 21

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94

Galestar batzuen bisita izan dugu aste honetan. Galestik Euskal Herria ezagutzeko asmoz etorri dira hango Unibertsitateko zenbait irakasle eta ikasle.

Arrasateko Udalaren hizkuntz politikaren berri jaso eta ARRASATE PRESS zein ATB ikusteko aukera ere izan dute. Ikusitakoa gustokoa izan dutela aitortu digute.



M^{re} Angeles Garcia eta Patro Delgado, maiatzaren 14ean ezkondu ziren San Isidro elizan. Ezkon bidaian lanzarote eta Tenerifera joan ziren. Zorionak!




La Merced ikastetxeko ikasle izandakoek elkartu eta afari ederra egin zuten joan den astean. Afarian ikasle garaiko makina bat kontu gogoratzeko aukera izan zuten mahai inguruan eseri ziren guztiek. Hurrengoa antolatzeko desiatzen daude honezkero...



SUPER BAT izeneko Euskal Telebistako haurren klubeko bazkideen artean **300 arrasatear** baino gehiago daudela jakin dugu. Super Bateko bazkide izateak, badu abantailarik, esaterako, zenbait saskibalo eta futbol partidutara dohainik sar daitezke; erakusketa eta zirkoetan ere bai. Honez gain, bazkide guztiei euren urtebetetzean eskutitza bidaltzen diete opari batetik; oparia pizza bat izaten da.

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria

Arrisku gerentea

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5^o-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE



Isabel Etxebarrieta eta **Ignacio Telleriak** Urrezko eztaiak bete dituzte, maiatzaren 8an. Bikotea 1944ean ezkondu zen eta 50 urte horiek ospatzeko, senitartekoekin batera meza izan zuten San Frantzisko elizan eta ondoren bazkaria Txirritan. Andoni Iñurria ilobak, aitona-amonarekin batera ospatu nahi izan du egun berezia . Zorionak!



Pasa den asteburuan Italiako **Ortonovo** heritik etorritako ordezkartzaren bisita jaso genuen Arrasaten. Izan ere, 10 urte bete dira Arrasate eta Italiako Ortonovo herrien arteko harremana hasi zela. Hasieran eskultura eta artelanaren inguruan bildu ziren herri biak. Harreman hori futbolera hedatu zen ondoren, Mondraren eta Orione taldeen arteko trukatzeko esperientzietatik abiatuta. Era berean, Arrasate Musikalek ere eskaini zuen 1985ean eman-kizun bat, eta hurrengo urtean Euskal jai bihurtu zen Ortonovo, SUDC, Lore Gazteak dantza taldea, Gaiteroak eta abar arduratu baitziren hemengo kultura Italiako lurretara eramateaz.

Txufxumutxuak

IZEN PROPIOAK

● Susana Rodriguez

19 urteko arrasatearra, AHIZKE-CIM-ek ikasleen artean antolatzen duen zozketaren irabazlea da. Hau dela eta, uztailean ingalaterrara joango da ingeleseko ikastaro bat egitera.

● Cesar Cimiano,

“Txifi” arrasatearra izan da, 94 urteko San Juan Jaietarako kartelaren lehiaketaren irabazlea. Cesarrek Arte Ederrak ikasi du Leioan.




BBV bankuan, aldaketa batzuk egin behar dira bereroari eskaintza hobea emateko asmoz. Bulegoaren barruan bi atal bereiztuko dituzte: Enpresen bulegoko zuzendaria **Lauri Zabala** izango da eta bezeroekiko arretaren arduradun, berriz, **Gonzalo Zubizarreta**.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
kongromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

CITROËN JUMPER

BERRIA



KARGA-LEKUA

Alboko ateetan 3 bertsio:

1,09 x 1,45 m,

1,26 x 1,45 m,

1,26 x 1,77 m.

Barrukaldetik 3 altuera: 1,56 - 1,88 eta 2,12.

Bolumen erabilgarria: 7,5 - 12m³.

Karga erabilgarria: 1.135etik 1675 Kgtara.

Atzeko ateetan 3 altuera: 1,44 - 1,76 eta 2,01m.

42 bertsio aukeran.

3 luzera erabilgarri: 2,51 - 2,86 eta 3,36 m.

Atzeko gurpilen arteko zabalera

Europa mailako errekorra



ATSEDEN-LEKUA

Linea modernoa

Gidatzeko oso eroso

Direkzio lagundua

Gidariaren jarlekua altueran

erregulagarria

Leihoak istekoa elektriko eta itxitura

zentralizatua

Atzeranzko ispilu elektriko lurringaitzak

Ikusgarritasun bikaina

Portaera bikaina errepidean

ABS

4 motor moeta

2 Diesel (1.9 eta 2.5)

2 Turbo Diesel (1.9 eta 2.5)

Gehienezko potentzia: 71tik 103 CV

DINetara

Kargarako lekua eta erraztasuna

**Zatoz ezagutzera
ekainaren
3 eta 4ean**



CITROËN

Chapime Tailerrak



Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE

EZIN DUZU IMAGINATU ERE EGIN CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN


AUPA TXAPELDUNAK!!



Argi ibili txapeldun

Zapatua, arratsaldeko 5ak, Zaldibarko inguruak jendez leporaino eta bi talde finalistak, Argi ibili eta Fosforos, kantxan norgehiagoka hasteko gertu; Canacho epailea ere bertan. Aurrez ikusita, pronostikoak Argi Ibiliren alde zeuden arren, aldea ez zen hain nabarmena, Fosforosen alde apostu egin zutenak ez ziren gutxi izan. Neurketa hasi, eta lehen zatian emozioa eta lehia bizia izan ziren

protagonista. Aukerak ate batean zein bestean, eta aukera horiek gol bihurtu zituen lehen jokalaria Argi Ibiliko Bunder izan genuen. Fosforosko Juanitok ez zuen itxoin eta berdinketa lortu zuen. Bigarren zatian berriro ere, Bunderren gol bati esker Argi Ibiliren alde erabaki zen neurketa. Kontuak kontu, Argi Ibili izan dugu Zaldibarko Txapelketako jaun eta jabe. Zorionak!



LORATEGI
Iturriotz, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

PUB HAIZEA



arrasate

Iratik 6 - Trikitik 6

Irati eta Trikiti aurrez aurre, 3. eta 4. postuak jokoan. Partidu bikaina ikusteko aukera izan genuen, eta golak futbolaren esentzia, barra barra, gainera. Guztira 12 gol, 6 gol talde bakoitzeko. Iratiko golegileak: Asier, Aitzol, Mikelek bi eta Kepak beste bi, izan genituen. Trikitin, ostera, Iñakik bi, Juanek bi eta Romanek bi. Neurketan zehar indarrak parekatuta izan zituzten talde biek, batek gola sartzen bazuen bestea ez zen kukiltzen eta beste gol bat lortzeko saiakera guztiak egiten zituen; pentsatu, egin eta lortu, jakina. Horren lekuko 6ko berdinketa. Berdinketaz bukatu zen neurketa eta penaltietara jo beharra. Penaltietan Irati S.T.S.k punteria hobea erakutsi zuen eta 3. postuan sailkatu.



Argi Ibilik 2 - Fosforosek 1

Finala, nola ez, bizia eta emozioz betea. Irabaztea nahi zuten talde biek eta partiduak iraun zuten denboran argi eta garbi nabaritu zen nahi hori. Partidua hasi eta lehen gola Argi Ibilikoak lortu zuten. Dena dela, Fosforosekoak berdinketaren bila aritu ziren. Horrela bada, Juanitok neurketa berdintzea lortu zuen. Lehen zatian aukerak ate batean eta bestea ikusi genituen. Bigarrean berriz, Argi Ibilikoak zorte haundiagoa izan zuten eta Bunderrek lortutako gol bati esker, aurretik jarri ziren berriz. Aurretik jarri eta aldeari bukaera arte eusteko gauza izan ziren. Horrela bada, 93-94 denboraldiko txapeliduna Argi Ibili dugu. Zorionak!



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994 - 95 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994 - 1995 ikasturteari begira

✓ Haur Hezkuntza

✓ Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

✓ Hezkuntza musikala

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 71 41 57 ESKORIATZA

TOLDOS LETE, C.B.




**Eguzkiaren indarrari...
marka baten sendotasunak gogor egiten dio**

Kataide poligonoa. 14. Pabilioia (Musakola)
Tfnoa: 79 23 83 FAX: 77 04 45



Arati eta Trikiti izan genituen aurrez aurre lehen neurketan.



Argi ibili eta Fosforosekoak borroka bizian ibili ziren partiduan zehar.



Zaldibarko frontoia gainezka egon zen, jendea edonon.



Txiki txikitatik txapeldun izatea zer den ikasten.

Bukatu da, bukatu da horrenbeste asteburutan protagonista izan den Zaldibarko Txapelketa. Zapatuan eman ziren azken ostikoak eta orain datorren denboraldian pentsatzen jartzeko ordua da. Hemendik aurrera, antolatzaileek hilabete batzuk izango dituzte patxadan egoteko eta jokalariek, berriz, talde sendoagoak osatzeko. Bitartean Zaldibarko frontoia lasai-lasai geratuko da, asteak joan eta asteak etorri bizi izandako mugimendua baretu egingo da, baina jakina, ez betirako.

SEAT	Udalaitz, S. A.
Audi	ADI!
2. Eskuko	autoak
POLO Coupe	BI-1124-AW
AUDI 90	SS-9527-AC
IBIZA	SS-9525-AB
SEAT MALAGA	BI-5051-AY
Musakola auzoa, z/g	
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25	



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna


Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



Batzuek trofeoa jaso eta besteek urdaiazpikoaz konformatu behar.

Sari ugari banatu zen. Lehen saria, txapeldunarena, Argi Ibilik jaso zuen. Bigarrena Fosforos taldeak. 3. postuan Irati S.T.S sailkatu zen eta 4. Trikiti. Hauxe gain, Fosforos taldeko Tonino finaleko jokalaria onenaren sariaren jabe egin zen. Txapelketa 7 jokalaria nabarmenenak ere sarituak izan ziren: Paco -Argi Ibili, Juanito -Fosforos, Lazkano -Motz, Naranjo-Franciscaner, Elias -Nabarros, Galan- Revolution Rock eta Ozaeta-Arrasate kristaldegia. Urdaiazpikoa, lehen fasean azkenengo tokietan geratu ziren taldeentzat: Etxe Mobiliario, Elisabeth, Korinto taberna eta Atxanta ke te Merece. Eta iaazko txapelketa bi jokalaria, Txiki eta Murillo, hil egin ziren eta hauen oroimenez bi sari berezi banatu ziren. Gure saria, berriz, jokalaria eta antolatzaileentzat.



Eugenio Murillo eta Txiki zirenak omentzeko bi plaka eman zituzten.



Mikel Galan atezaina ere ederto ibili da txapelketan zehar.



Tonino Fosforos taldekoa izan zen finaleko jokalaria onena.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

● Andoni Egaña Txapelaren pisua

Andoni Egaña: Euskal Herriko bertsolari txapel-duna eta ETBko "Balinda" saioko aurkezlea. Gurera hurbildu genuen bere gogoeta eta kezketan arakatu asmoz: Zarrautzar honen mingainak ez du trabarik.

–Txapelak asko pisatzen du?

– Pixka bat bai; autokonpromezuaren zentzuan diot hori. Txapeldun ez nintzela lasaiago nengoen, nire buruaren erantzule nintzen eta kitto. Orain ere nere buruaren erantzule soila naiz, baina bertsotan gabiltzanok, bada-kigu bertsogintza gauza bat dela eta bertsolaritza beste gauza bat: bertsogintzak mugimendu oso bat sortzen du inguruan eta bertsolaritza, herri bat egiten ari garen ikuspegia da, euskal kultura zerbait badela... Ikuspegi mordo bat da, etorkizunerako apostu bat da. Bertsogintzari dagokionez, lehengo pisu berbera daukat baina bertsolaritzari dagokionez, lehen baino pisu gehiago daukat, azken finean txapeldun naiz eta ezin naiz gaixotu, kodrilako afariak utzi egin behar izaten ditut askotan... askoz ere konpromezu gehiago daukat, baina horrek ez du esan nahi "martir" bat naizenik, ezta gutxiago ere: 4


urtetan "titulo" hau eramatea tokatu zait eta pozik nago.

–Zein da "Balinda"ren hitz-jokua?

– "Balinda" hitzak berez ez du ezer esan nahi, gertatzen dena zera da: "balinda" jende askok erabiltzen duela "dezakegu" edo "daitezke" potentzialak sahiesteko. Umeek hori asmatu baldin badute, gabezia batengatik izan da eta horrek ez du esan nahi ondo esanda dagoenik; gramatikalki erabat inkorrektoa da, baina hizkuntzaren ikuspegi bat adierazten du. Bestalde, ETBko programen tituloak ikusirik, iruditzen zaigu titulo asko daudela produktu erdaldunei garo usaina eman nahi diotenak, "Hor dago koxka" edo "Ganbaran bai" tituloak adibidez, eta agian horrek telebistan funtzionatzen du baina zelofana ez da garrantzitsuena izaten, barrukoa baizik.

– Euskararen eta euskalkien prestigioa dela eta, gure bizkaiera gipuzkera baino "zarragoa" dela esaten digute...

– Hori defendatzea lotsagarria iruditzen zait, euskalki bakoitza den bezalakoa da eta punto; gainera, azken batean denak dira euskara. Egia da euskalki batetik bestera aldea dagoena baina nik



Argazkia: Leire Arzuaga. (ARGIA)

ez dut inoiz planteatu izan "euskalki honetakoa naiz"... probintziakeria oso arriskutsua da Euskal Herrian, ikuspegi nazional baterako. Gainera, nik uste, 68an Arantzazun egin ziren bilera haietako arazoa, euskara batu bat sortzea zela, hau da, administrazioarako, irakurketarako eta komunikabideetarako euskara bakar bat sortzea, eta egin zen eta aurrerapen handi bat izan zen hura, baina orain, 25 urte beranduago, euskalki bakoitzak nagusitu den euskara horri egin diezazkiokeen ekarpenak neurtzen ari gara eta alde horretatik, gauza asko egiteke daudela iruditzen zait.

– ATBn eta ARRASATE PRESS-en zein euskera-eredu erabili beharko litzateke zure ustez?

– Hori oso eztabaida zaila da: nik uste dut nagusiki euskara batua erabili beharko zenuketela baina pixkanaka, zuen euskalkiko eta Lenitz Bailarako hizkerarekin nahasi. Oso aberasgarria litzateke kanpoko batek ARRASATE PRESSA irakurriko balu eta zuen jergaren batengatik interesatua, galdetzen eta aztertzen hasiko balitz.

– "Balinda"k jarraituko du?

– Ez dut uste. Gure partetik bai: guk "Ikuskin" produktorekin egin dugu lan eta gero telebistari saldu diogu produktua; hasieran 13 programatako kontratua egin genuen eta gero 40koa. Hurrengo urterako guk zein asmo ditugun badakit baina ETBrenak ez ditugu ezagutzen.

– Eta Andoni Egañak jarraituko du telebistan?

– Ez, honetan ez balitz, ez, eta produktora horrekin ez balitz ere ez.

● "ETBko programa askoren tituluei, garo usaina eman nahi diete"

Transformados eta Cerrajera Nork dauka arazoa konpontzeko giltza?

Maria Agirre


Oraindik ere kanpotarrek "cerrajeros" izenez deitzen diete mondrautari. Izan ere, Zaldibarren hiltzorian dagoen fabrika horrek izena eta izana eman dio herriari. Orain, berriz, Arrasateko garapenaren motorra izan denak, bere azken orduak bizi ditu.

Cerrajera gabe, Arrasate ez zen gaur egun dena izatera iritsiko. Fabrika horrek, herriaren garapena bultzatu du eta ostean sortu diren enpresa

gehien "aita" da. Kooperatiben sortzaile izango zirenek ere Cerrajeran ikasi zuten. Espainia guztian ezaguna, handien artean handiena izan da. Nork esango zuen horrelako inperio batek gainbehera ezagutuko zuenik?

GARAI OPAROAK

Diktadura garaietan batez ere, hazkundera ezagutu zuen Cerrajerak. Primo de Riveraren eta Francoren diktadura garaietan Cerrajeran izugarri produzitzen zen. Garai haietan lan egin zutenek ondo gogoratzen dute produzitzen zutena bapatean eskuetatik



kendu egiten zietela edo askotan eskariak enpaketatu barik bidaltzen zirela. Konpetenziak ere ez zion itzalik egiten, horrelako arriskurik ikusi bezain azkar, produktuen prezioak jeitsiz konpetentzia kentzea lortzen baitzen.

Horrelako fabrika herrian izanda, edonork zuen lanerako aukera. 1929an Arrasateko plantan bakarrik 1300 langile zeuden lanean (egun, berriz, Transformados Metalicosen 94 langile eta Cerrajeran 85 daude lanean). Baina ez mondrautarrak bakarrik, kanpoko langileak ere eraka-



UCEM Korporazioak enpresak itxi eta lurzorua saldu egin nahi du. Sindikatuek, berriz, ez dute irtenbide hori onartzen.

rri zituen eta horren eraginez, Arrasateko demografiak izugarrizko gorakada izan zuen.

Baina gutxinaka-gutxinaka lantegi horren itzalean fabrika txiki batzuk hasiz joan ziren eta azken horiek Cerrajeraren mailara iristen ahalegintzen ziren bitartean, Cerrajerak lo hartu zuen.

ZER GERTATU DA?

Cerrajeraren gainbehera bizi izan duten lagun batzuekin izan gara eta bakoitzak bere matizazioak egiten dituen arren, guztiak bat datoz jabeek enpresa txarto gestionatu dutela adieraztean. Gehienek ustez, azken hamarkadetan agindu dutenek ez dute enpresari izpiriturik izan eta ez dituzte aukerak aprobetxatu. Sindikatuek, berriz, salaketa gogorragoak egiten dituzte eta UCEM Korporazioaren asmo bakarrak, espekulazioak, enpresak sortu eta ondoren saltzeak, egoera horretara eramanez dutela azpimarratzen dute. "Hori horrela ez bada, zergatik inguruko enpresa batzuk, Aretxabaletako Cerrajera Valle Leniz eta Azbek, adibidez, ez dute porrot egin eta Cerrajerak aldiz bai?" sindikatuen ustez Korporazioaren asmo bakarra dirua erraz irabaztea izan dela erakusten du horrek.

Agian Cerrajeraren akats handiena, produktu bakoitzeko bezero bakarra edukitzea izan da. Gurpil produkzioan bezeroa bakarra izan da eta gauza bera gertatu da butano eta torlojuen bezeroekin. Horregatik, 60. hamarkadan Renfe eta Michelin bezalako bezeroek huts egin zuten eskaria jeitsi egin zuten eta Cerrajera krisian sartu zen. Baina arazoa ez zen igartzen, UCEM Korporazioak beste diru iturri batzuk baitzituen eta horiekin Arrasateko galeak estali egiten ziren. Hain zuzen ere Bergarako Altos Hornosek ematen zituen irabaziekin hainbat urtetan z-



Osteguneko manifestazioan, patrimonioa herrian uztea eskatu zen.

har Cerrajeraren zuloak estali egin ziren. Baina 1987an, Cerrajerak zor handiegiak pilatu zituela ikusita, ministerioak aginduta, Korporazioak Bergarako Altos Hornos lantegia saldu egin behar izan zuen eta ondorioz, urtetan pilatuz joan ziren arazo guztiak begibistan eta Cerrajera bakarrik, geratu zen. Hortik aurrera korporazioa enplegu erregulazioak aurkezten hasi zen eta 1989an Cerrajeraren banaketa etorri zen, aurrerantzean bi enpresa izango ziren: UCEM Cerrajera eta UCEM Transformados Metálicos.

BI AUKERA

Joan den otsailean bi enpresetarako plana aurkeztu zuen UCEM Korporazioak. Plan horretan jasotzen denaren arabera, Cerrajeran 36 langile eta Transformadosen beste 52 egongo lirakeke soberan. Korporazioaren ustez, bi enpresa horiek dauden lurzorua saldu eta gainontzeko lan-

gileekin beste lantegi bat irekitzea izango litzateke irtenbidea.

Sindikatuek, berriz, irtenbide hori ez dute inola ere onartzen eta Korporazioaren asmoa "dirua lapurtzen jarraitzea" dela salatzen dute. Horregatik, UCEM Korporazioak proposatu duenari aurre eginez, urtetan arazoaren ikuspegi desberdina azaldu duten sindikatuek adostasun batera heldu eta beren plana aurkeztu dute. Lehenik eta behin, honakoa eskatzen diote Korporazioari: patrimonioa ez saltzea eta langileen esku uztea. CC.OO, LAB, ELA, ESK eta UGTren ustez, dibertsifikatuz, hau da, beste produktu batzuk eginez eta langabezian errotazioa eginez baina langilerik kaleratu gabe, irten daiteke aurrera. Hori eskatzeko, protesta ekintzak egiten ari dira sindikatuak aspalditik. Ostegunero kontzentrazioak egiten dituzte eta atzo egin zuten manifestaziora, berriz, herritar guztiak gonbitatu zituzten, Korporazioari patrimonioa herrian utz dezala eskatzen laguntzeko. Sindikatuek adierazi zuten, "kiebra bidez enpresak itxiko dituela esanez mehatxatzen gaitu Korporazioak. Horregatik, herriaren laguntza izatea garrantzitsua da".

Bitartean, udalaren enkar-guz, LKS enpresa kontsultorak bi enpresa horien inguruko bideragarritasuna ikertu du. Oraindik ikerketa horren berri izan ez dugun arren, sindikatuek aurreratu dutenez LKSren txostenean ere ageri da aurrera irteteko patrimonioa langileen esku geratu behar dela.

Edozelan ere, etorkizuna ez da erraza izango eta sindikatuek ere badakite arazoari buelta ematea zaila izango dena. Cerrajera ere ez da garai batean izan zen izango. Eskatzen duten gauza bakarra, aurrera irteteko aukera bat ematea da.



**errajerak
herriaren
garapena
bultzatu du eta
ostean sortu
diren enpresa
gehienek aita
izan da.**

170 neska futbitoan jaun eta jabe



Zapatuan neskek izan genituen protagonista lurripen.

Bihekok antolatu zuen nesken futbito txapelketan giro ona, futbol bikaina eta kiroltasuna bihurtu zitzaizkigun protagonista. 17 talde eta guztira 170 neska ibili ziren jo eta ke 7 ordu iraun zuen txapelketan. Arrasatetik 10 taldek eman zuten izena, besteak beste, Xaplastak, Biheko, Karpen Diem, Jo Ta Sue, Bixentak, Txakolin Txis Txas, Joixon bertan, Ezezagunak... Bergararik 3 etorri ziren, eta gainontzekoak, Atxabalta, Antzuola, Elgeta eta Eibarrik. Bitan banatu zuten txapelketa antolatzaileek: batetik neurketak irabazten zituzten taldeek multzo bat osatu zuten eta bestetik galtzaileek beste bat. Bide batez, epaile lana antolatzaieki eta talde desberdinek bete zutela esan

behar da. Horrela bada, irabazleen multzoan, lehenokian "Exkalibur" Eibarreko taldea geratu zen, talde honek

joku bikaina egiten badakiela erakutsi zigun; saria, trofeoa eta kamiseta bana. Arrasateko "Txakolin Txis Txas -ek"

2. tokia lortu zuen, beraz, trofeoa eta frakak jaso zituzten oparizat. Esan beharra dago, talde hori saskibaloiko jokalariz osatua zegoela. 3. Antzuolako "Idolaz" geratu zen eta 4. AEDko "Jo Ta Sue". Galtzaileen multzoan, "Elgetakuak" eta "Biheko" taldeak heldu ziren finalera, eta baloiari makina bat ostikada eman ondoren, "Elgetakuak" izan genituen jaun eta jabe. "Bihekok" datorren urtera arte itxaron beharko du.

Antolatzaileak, bestalde, oso baikor daude abian jarri duten lehen esperientziak eta datorren urtekoari begira jarri dira dagoeneko. Gainera 15-16 urte bitarteko neskek kirol ez profesionala egiteko aukera gutxi dutenez, primeran datozkie horrelako txapelketak.



Txapelketan parte hartu zuten neskek, futbolaren berri jakin badakitela erakutsi ziguten

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

**MARKO-
JARTZEAK**


Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Boleiboleko entrenatzaile ikastaroa

PENALTIAK

● Ekainaren 10ean Deba garaiko edadetuen III. kirol jaia egingo da Arrasaten. Jai honen helburua, egun alaia pasatzea da, kirol espiritua indartuz. Besteak beste, parte hartzaileek honako kirolak egiteko aukera izango dute: Aktibitate desberdinak, Euskadiko antzinako jokoak eta oinezko ibilaldiak. Jai arratsaldeko 3etatik 8etara izango da eta Deba Garaiko edozein edadetuk har dezake parte; izena ematea besterik ez da egin behar.

● Aretxabaletan korritu zen bigarren mailako txirrindulari kadeteen lasteketan, lehia bizia ikus-teko aukera izan genuen. Azkenean, sprinta nagusitu zen eta Oriako taldeko Jon Del Rio izan genuen azkarrena, 1 25' 50" denbora eginez. Bigarren tokian Dorletako Ama taldeko Mikel Rolandan helmugaratu zitzaizgun, 3. Jabier Sedano, Dorletakoa hori ere, eta 4. Igor Maiz Loinaz taldekoa. Mendiko saria Jabier Sedanok lortu zuen. Esan behar da, 106 txirrindularik hasi zutela lasterketa baina 42k bakarrik bukatu.



Boleibola gertutik ezagutzeko aukera izango dugu ekainaren zehar.

Boleibolak azken bolada honetan izan duen gorakada ikusi eta gero, Deba Garaiko Udal Kirol zerbitzuak, Boleiboleko entrenatzaile izateko ikastaro bat jarriko du abian. Ikastaroa ekainaren 11-12an eta 18-19an izango da, Arrasateko kiroldegian. Ordu-tegiari dagokionez, larunbatetan 9etatik 2etara, arratsaldean 4etatik 8etara. Igandetan, berriz, 9etatik ordu bata arte. Ikastaro honetan parte hartzen dutenek lehenengo mailako boleiboleko entrenatzaile tituloa lortuko dute, hau da, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak

entrenatzeko tituloa. Titulazioa Gipuzkoako Boleiboleko federakundeak emango du. Beraz, baldintza bakarra 17 urte baino gehiago eta

gogoia izatea da. Bestalde, izenematean 8.000 pta ordaindu beharko da. Hala ere, Deba garaiko edozein kiroldegitako abonatu direnentzat 6.000 pta. besterik ez da izango. Ikastaroak irauten duen denboran gai hauek jorrratuko dituzte: teknika, taktika, miniboleibola, arautegia, talde zuzendaritza, plangintza eta prestakuntza fisikoa. Lehenengo hiru gaiak euskara hutsean emango dira. Esandakoak esanda, animatzen bazarete Musakolako kiroldegian eman dezakezue izena edo Deba garaiko beste edozein kiroldegitan bestela.

EMAITZAK

Futbola

Emakumeak (kopa): Gure Txokoa 2-Mondra 3. Penaltietan Mondra eliminatuta. Jub. Ohorezko Liga: U Txiki 0-Mondra 1

Pilota

Herri artekoa, finalerdiak Segura 4- Arrasate 2. Infantilak (3-18), Jubenilak (22-17), Nagusiak (22-13).

AKADEMIA

HAURTOKO A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

IBARRA
Garajea S.L.

EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



SALOME ELKOROBARRUTIA

Landarak zaintzeko gustoa eta artea behar da beste ezer baino lehen; baina gure etxeetako balkoietan hain ugaria den lora hau zaintzeko orduan kontutan izan beharreko aholku batzuk eskatu dizkiogu Salome Elkorobarrutiari.

• Geranioak asko jaten du lurra, bere sustantzia guztiak kendu egiten dizkio urtebetean. Urtebetean xurgatzen dizkio lurrak dituen sustantzia guztiak.

• Udazkenean, azaroko lehen ilberan, ahal bada, dena

Geranioak zelan zaindu

moztu beharra dago. Erdi erdiko kukulua utzi eta beste adar eta kirten denak kendu egin behar zaizkio, poda-artzaiak erabiliz.

• Gero lorontzitik atera eta lurberria jarri behar zaio. Nahi bada udaberrira arte utzi daiteke lurrik aldatu barik.

• Izotzak oso azkar harrapatzen duenez, tapatu edo babesera eraman behar da neguan; izotzak goitik behera harrapatzen badu, guztiz erreta geratzen da.

• Aurretik lurra aldatu ez bazaio, otsaila da lan hori egiteko sasoi egokia, ilbeheran beti. Lurra barrizatutakoan, abonua aletxo batzuk botatzen zaizkio, ez ipurdi-ipurdian eta ez goian ere, erdi inguruan edo, eta asko bota barik.

• Ongarri organikoa ere oso komenigarria izaten da:



Geranioak izaten dira balkoietan gehien jartzen diren loreak.

satsa, turba, ostroak, gainean botatzen zaizkio.

• Loran dagoen geranioari berehala kendu behar zaizkio zimendutako orriak eta lorak, horrek indarra kentzen dio eta landareari.

• Ura astean pare bat bider egin behar zaio, astelehen eta

ostiralean adibidez, goitik eta behetik, ito barik. Platerean ura duen artean defentsa du, eta ez da ihartuko, bere kasa hartuaz joango da. Baina goia ere bustita izatea komeni zaio. Ordurik egokiena, eguzkiaren irteeran edo sarreran izaten da.



Udal Euskaltegia
Arrasateko Udala

UDAKO IKASTAROA 94

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte


- ✓ 5 ordu goizez
- ✓ Maila guztiak
- ✓ Matrikulaldia:

Ekainaren 1etik 17ra arte

- ✓ 16 urtetik gorakoentzat
- ✓ Beka Sistema ere badaukagu
- ✓ Informazio zehatzagoa:

79 70 77 zenbakian

ARIMAZURI PLAZA, 2 TFNOA: 79 70 77 / 79 77 88 FAX: 79 91 43



Haur txikiak orain, argazkikoek bezela, musika ikasteko aukera izango dute.

4 urteko haurrek musika ikasteko aukera

Arrasate Musikal zonalondu beharren dago herria: Eusko Jaurlaritzak, musikako lehen maila inpartitzeko baimena eman dio gure akademiari.

Orainarte, Euskal Herri osoko musika eskoletan, 2., 3. eta 4. mailak bakarrik eman zitezkeen, hau da, 8 urtetik gorako ikasleek bakarrik zuten musika ikasketak egiteko aukera, 4 urtetik 7 urte bitarteko haurrak aukerarik gabe gelditzen zirelarik. Duela 4 urte Eusko Jaurlaritzak baimen hau emateko asmoaren berri eman zuenean, Arrasate Musikal lanean hasi zen: baimen hori lortu beharra zegoen.

4 URTEKO MUSIKOAK HEZITZEN

Akademian bertan adin horretako haurrei musika ezin irakatsi zitzaienez, Arrasateko hainbat ikastetxetara jo zuten "Musika

Eskoletan" kanpainaren barruan, 4 eta 7 urte bitarteko haurrei musika irakasteko. Arrasate Musikalako irakasleak ikastetxetara joan izan dira 4 urtetan haur hauen gan heziketa musikala sustaritu asmoz.

"Orff" izeneko sistema erabili dute horretarako. Sistema hau, musikaren esperientzia erritmikoan oinarritzen da eta beste sistema batzuen sustantzia interesgarrienak hartuz aberastu dute.

"ORFF" SISTEMA MUSIKALA

Sistema honek 3 atal ditu: Musika eta dinamika,

Arrasate

Musikal izan da baimen hau lortu duen lehen musika-eskola.

Instrumentu-aurrea eta heziketa erritmikoa. Atal hauen bidez, haurri oso atsegina egiten zaio musika irakasgaia eta musika notak ezagutu gabe instrumentu bat jotzera hel daiteke.

Ikastaro bereziak hartu dituzte irakasleek eta azkenean, 4 eta 7 urte bitarteko haurrei musika irakasteko gai direla ikusiz, Eusko Jaurlaritzak akademian maila hori eman ahal izateko baimena luzatu die; Euskal Herrian maila hau emango duen lehen akademia izango da. Lehen maila horrek 3 urte irakungo ditu luke eta ikastetxetako esperientzia akademiara eramango litzateke.

Dagoeneko, maila honetan 36 haurrek eman dute izena eta epea zabalik egongo da ekainaren bukaerara arte.

Bestalde, eta gainontzeko mailei dagokienez, aurreko urtean baino 70 lagun gehiagok eman dute izena. Epea zabalik dago oraindik.

LABURRAK

Zaharren Astea

Iturbide egoitzak antolatuta, datorren astean "Zaharren Astea" burutuko da. Astelehenetik ostiralera-bitartean, Ikastolako abesbatza, txistulariak, Txatxipel taldea, Jose M. Astigarraga parrokoaren hitzaldiak eta trikitilari emanaldiak izango dira. Aste berezi horri behar bezalako amaiera emateko, larunbatean egoitzako aitonaonek urteroko bidaia egingo dute Hondarribira. Igandean, berriz, goizeko 11etan egoitzako kaperan, meza izango dute San Viator ikastola taldearekin.

Kirol-abentura udalekuak

Diputazioak, 18-29 urte bitartekoentzat udalekuak antolatu ditu. Egonaldiak astebetekoak izango dira toki ezberdinetan: Belaguan, Picos de European, Guaran, Iratin, Huescako Gallego eta Linzan, Aizkorri eta beste hainbat lekutan. Oporraldi hauetan, kirol-abenturak egiteko aukera izango da: parapentea, kañoi jeitsierak, puenting-a, rappel-a, piraguismoa eta beste asko. Prezioak 17.000 eta 29.000 pta. bitartekoak izango dira. Izena emateko epea ekainaren 25ean amaituko da.

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb. 3-1^a
Arrasate
Tel.: 79 32 16

1994ko UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

GESTIOko INFORMATIKA
PROGRAMAZIO INFORMATIKA
KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO DISEINUA
(Autocad V. 12)

INJINERUTZA TEKNIKOAK
KLASE BEREIZGARRIAK

Abuztuan ere
prestatzen dugu

HASIERA: UZTAILAK 1 - AMAIERA: UZTAILAK 29


Carmelo Galdos Bideberri

“Santa Barbarako gaztelua, ‘Shakta’ erlijioaren arrastoak desagertuarazteko eraiki zen”

Istripu baten ondorioz ezin izan zuen lanean jarraitu. Arrasateko planuari kasualitatez eman dako bira batek, 950 orri-tako liburua idaztera eraman du. Bere ustez, Arrasatek “Shakta” erlijioa ezagutu zuen eta gure herriko toponimia erlijio horri zor diogu.

1983ko abuztuaren 10ean, 47 urte betetzeko ordu bat besterik falta ez zuenean, istripu larri bat izan zen Donostian: Carmelo Galdos Bideberri zauritueta bat izan zen. Geroztik, bere bizitzak 180 gradutako bira eman zuen. Bere industri-maixu lanbidea, guztiz alboratuta utzi behar izan zuen.

Carmelo Galdos arrasatearra izan arren, duela 23 urtetatik Parisen bizi da eta “Arrasate y su poder serpentina” izeneko liburua idazten eman ditu azken 12 urteak: liburu harrigarri horrek, K.a. 2000. urtetik K.o. 2000. urtera bitartean, Arrasaten erlijio transizio bat izan zela defendatzen du; Siva jainkosa indiarren “Shakta” izeneko sekta transizio horretako erlijio bat izan zen.



Carmelo Galdos bere ikerketa lanarekin.

— Zerk eraman zintuen ikerketa lan honetara?

— Kasualitate hutsa izan zen: Letonaren “Mondragon” izenburuko liburua heldu zen nire eskuetara. Liburu horretan, XIX. mendeko alde zahararen plano bat agertzen zen horizontalki jarrita. Ez dakit zergatik baina planua bertikalki jartzea bururatu zitzaidan. Geroztik, 12 urte pasatu ditut lanean, mugimendu txiki hori egitearen ondorioz burura etorri zitzaidanari zentzua aurkitu nahiean. Planoari

.....


“Liburu hau Euskal Herriarentzat garrantzitsua ez bada, moz diezadatela burua”

buelta ematean, zentzua guztiz aldatzen da, Chillida eta Oteizaren kasuekin bezala gertatzen da: bata horizontalista da eta bestea bertikalista; bi objetibo desberdin ikusteko bi era desberdin dira.

Eta posizio aldaketa simple hark, gaur egun ia 1000 orri dituen liburu bat idaztera eraman zuen Karmelo. Udaletxean, Arrasateko neurriak eman zizkieten eta neurri horietan oinarrituz eta makina bat liburu kontsultatuz, bene-

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

tan ondorio harrigarrietara heldu da Karmelo, inoiz historiagile bat heldu izan ez den lekura.

— Plano hura zentzu bertikalean jarri zenuenean, zer ikusi zenuen?

— Kasualitate handi batez ohartu nintzen: Erdiko Kalea zuzen zuzenean zihola Goikobaluraino; hau da, Portaloitik Goikobalura marra bat eginez gero, zuzen zuzen ateratzen zela: horrek zerbait esan nahi zuen. Gainera, euren artean oso desberdinduta dauden 6 zati antzeman nituen planoan.

— Eta zer esan nahi du horrek?

— 6 zati horiek, indú eta budista taktikan, gorputzaren nerbio-sistema eta odolaren korrante teludikoak erreprezentatzen dituzte. Bestalde, alde zaharra 12 zatitan dago banatuta: 12 zati horiek astronomiaren 12 hilabeteak eta astrologiaren zodiakoko 12 zeinuak erreprezentatzen dituzte, beraz, Arrasateko alde zaharraren egitura "Shakta" sektak egin zuen.

— Zerk frogatzen du "Shakta" sekta Arrasaten egon zela horrenbeste urtetan?


— Lehenengo eta behin, K.a 2000. urtearen eta K.o 2000. urtea bitartean erlijio-transizio bat egon zela ulertu behar da. K.a duela 15.000 edo 20.000 urte, paganismoa zen nagusi Arrasaten eta garai hartako bizilagunak Goikobalura joaten ziren otoi-tz egitera: Goikobalu zen garai hartako zentru teludikoa,

leku guztietatik etortzen ziren Goikobalura otoi-tz egitera. Goikobalu erdian, espaziora proiektatuta zegoen harri bertikal eta luze bat zegoen: Haien ustez, harri honek jainkoarekin harremanetan jartzen zituen. Gero, "Shakta" erlijioa heldu zen eta hauek, Goikobalu erdibitu egin zuten 36 metroko perimetroa izango zuen zirkunferentzia lortzeko: gaur egun neurri hori dauka Goikobaluko perimetroak eta "Shakta" erlijioan, 36 zenbakia, batetik askorako ekibalentzia da. Mozketa horren

ondorioz, Portaloiaren eta Goikobaluren artean zegoen altuera diferentzia, 50 metrotan geratu zen: Hizkuntza Sanskritoan, bokal eta kontsonanteen artean, 50 hizkiz osatua dago alfabetoa.

— Zergatik ez da erlijio horretako arrastorik aurkitu?

— Oso simplea eta logikoa da: Erlijio honek tenpluak aire librean eraikitzen zituen. Gainera arrastorik gera ez zedin, pikardia handiz jokatu zuten kristauak. "Shakta" erlijioa desa-



Loreen marrazkiez egindako marra zuzen horrek, Erdiko Kalea erreprezentatzen du: Beheko lora, Portaloiak eta goikoa, Goikobalu. Sei lorek, taktika indú eta budistan, gorputzaren nerbio-sistema adierazten dute. Karmelo Galdosen ustez, Erdiko Kalea, sei zati hoietan banatzen da.

.....

"Arrasateko alde zaharraren egituraketa "Shakta" erlijioak egin zuen"

gertu zenean, politeismoa nagusitu zen Arrasaten, Nafarroa edo Arabatik apaiz kristau bat herrira heldu zen arte: apaiz hura, nire ustez, "templarioen" sektako ordenuren batetik etorritakoa zen. Arrasaten, kristautasuna erlijio nagusi bihurtu zen. Kristauak Arrasateko toponimia ondo ezagutzen zuten eta "Shakta" erlijioak egindakoa zela bazekitenez, hauen arrastoko desagertarazi egin zituz-

ten: Nola? Goikobalun zegoen "Shakta" sektaren "apaiz-etxea"ren gainean gaztelua eraikiz eta otoi-tz-tenplua zegoen tokian San Juan Bataitzailearen parrokia jasoz.

— Lliburua argitaratzean kritikak izango dituzu...

— Nire emazteak zera esan zidan: "Liburua argitaratzen den egunean zorotzat hartuko zaituzte", baina oraindik argitaratu ez den arren, dagoeneko entzun behar izan ditut horrelakoak ere. Badaukat erantzuna prestatuta: "Zer uste duzu, mundu honetan zu zarela zoro bakarra, ala?"

— Zein argitaletzek argitaratuko dizu liburua?

— Horren atzetik nabil orain eta azkenean, Europa Orientalean dagoen enbajadore argentinaren baten argitaletxeak Buenos Airesen argitaratuko didan esperantza dut.

— Zergatik ez Euskal Herrian?

— Ez dute nire liburua publikatzerik nahi, nire obra irakurtzeko utzi dieran ize-nak eman nahi ez ditudalako. Bilboko bi etxetara bidali nuen liburua irakur zezaten baina esan zutenaren arabera, "nire liburua ez da euren ideien estilokoa", "Txerriei lorak botatzen ari zarela ematen da idazten ari zaren liburu horrekin" esan zidan batek. Oraindik ez dakit zeresan nahi izan zuen horrekin, baina 12 urtetan idatzi dudan guzti hau Euskal Herriarentzat garrantzitsua ez bada, moz diezadatelaburua.

• Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak

• Otzaratzarrak

• Giltzak gordetzeko armairuak

• Erremintak eramateko gurdiak

• Erremintak gordetzeko armairuak

• Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78



San Jose ikastetxea, 1942.

S

ona hemen beste modraue-
tar pila handi bat. San Jose
ikastetxean ikasten zuten eta
1942ko ekainean atera zuten
erretratu hau, eskola zaharre-
ko eskaileretan. Sasoi hartan
Mateo Aguayo zen zuzendar-
ria eta ordurako ikasle asko

zituena ikastetxeak, 280 inguru
bai.

Goitik behera eta ezke-
rretik eskumara:

Tomas Madinabeitia
(†), **Elias Bolinaga**, **Eduar-
do Roa** eta **Jose Bengoa**.

Txomin Aranzabal, **Al-
berto Arregi**, **Jose M^a
Sarrionandia**, **Joseba
Arregi**, **Roman Durana**,
Santi Narbaiza (†), **Iñaxio
Gallastegi**, **Txomin Be-
rezibar**, **Luis Heriz** eta
Karmelo Zubillaga.

Antton Uranga (†),
Emilio Lizarralde (†), **Ju-
lio Uribetxebarria**, **Jesus
Azkoaga**, **Pako Aranba-**

rri, **Ramon Barrutia**, **Pa-
txi Argarate**, **Karmelo
Heriz**, **Juan Jauregi**,
Bixente Uribetxebarria
(†), **Gregorio Balanzate-
gi**, **Pako Arriaran** (†) eta
Bixente Uriarte.

Satur Ezkurra, **Satur
Jauregi**, **Felix Barrutia**, **Jo-
setxu Murua** (†), **Jabier
Urrutia**, **Tomas Iturbe**,
Jesus Sampedro, **Santia-
go Galdos**, **Luis Martinez**,
Teodoro Zubizarreta, **Victo-
riano Aranburu**, **Juan
Arzamendi**, **Juan Amozar-
rain** eta **Martin Gaztaña-
ga** (†).

Txomin Agirreurreta,

Nikasio Garai, **Gualberto
Gorosabel**, **Jose Mari Gu-
ridi**, **Jose L. Berezibar** (†),
Juan Egidazu (†), **Felipe
Aierbe**, **Jabier Iturbe**, **Ra-
fael Mendizabal**, **Jose A.
Arana**, **Roberto Arana**,
Leandro Uribarren eta **Ma-
nolo de la Maza** (†).

Juantxu Aranburu, **Si-
mon Garzia**, **Iñaxio Urion-
abarrenetxea** (†), **Juan
Bautista San Miguel**, **Al-
berto Rz. de Azua**, **Ra-
mon Zabaleta**, **Ramon
Bilbao**, **Gregorio Uranga**,
Alberto Madinabeitia (†),
Juan Arregi (†) eta **Maria-
no Barrena**.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

ORAIN OPEL-A ZUGANDIK HURBILAGO

Arrasaten banatzaile berria!

INAGURAZIO JAIALDIA
EKAINAREN 10EAN



Luntxa



San Juanetan, **Mallorcara** joateko
2 lagunentzako bidaiaren zozketa

OPEL 

Z A I N G A U Z K A Z U

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 ESCATU Pabilioian
Tfnoa: 79 05 86

• ESAERA ZAHARRA •

*Ekaina eder,
uda halaber*

• JEROGLIFIKOA •



Ilargia Lurraren inguruan

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12			13			14
15						16
17			18		19	
20						21

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Bisita egin. 8. AED-ko emakume taldea. 9. (Ald.) Zeregin. 10. Nortasun Agiri Nazionala. 11. Gorputzaren goiko zatia. 12. Hil kanta. 14. Tulioa. 15. Kualitatea. 16. ZERUko bokalak. 17. Kanpo. 18. Altzo. 20. Kostalde Urdineko hiria. 21. (Ald.) Momentu.

Bertikalak 1. Egiantan. 2. Beldurti. 3. Sinistu aditzaren infinitiboa. 4. Egin hitzaren kontrakzioa. 5. Ahuleri. 6. Bitartean. 7. Esamesa. 11. Bakoitzak bi. 13. Batuketa. 19. Gironako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Esaten dituzun txotxolokeriak esatea baino, hobe duzu isilik egotea.

Taurus Nahiz eta konplexu ugari dituzun, aitortu beharra daukat lore eder bat zarela.

Gemini Zure ondoan, minutuak ordu bilakatzen zaizkit: zu gabe, minutuak segundu.

Cancer Zure burua jainkotzat daukazu; sarritan hobe da "handikeriak" albora uztea.

Leo Ez dakit zer kristo darabilkizun, baina azken aldian nahiko urduri zaude.

Virgo Lan eskeintza bat izango duzu.

Libra Historiaurreko "cromagnon" a dirudizu. Aktualizatu, XX. mendean gaude eta.

Scorpio Poztuko zintuzkeen zerbait esango nizuke, baina gaurkoan ez dago zuretzat berri pozgarririk.

Sagitaris Lasaitzea eta egun pare batean hausnartzea komeni zaizu, bizitza presaka hartzen baituzu.

Capricorn Zortea aldeko duzu: Lana, nahi beste, lagunak ugari eta diru faltarik ez.

Aquarius Utz itzazu maitasun kontuak beste asteburu batetarako.

Piscis Asko maitatuko zintuzke buruan zure imagina soilik balu. Zoritxarrez ez zara bakarra, ordea.

CLOWN IKASTAROA

EKAINAREN 27tik UZTAILAREN 1ERA

ARRATSALDEKO 4ETATIK 8ETARA

(GUZTIRA, 20 ORDU)

"OIHULARI"

CLOWN TALDEAREN ESKUTIK


PLAZA MUGATUAK

MATRIKULA: 2.000 PTA.



IZEN EMATEA: GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOAN TFNOA: 77 00 65

• JOXEBI RAMOSEN GOMENDIOA •



“Gure ingurunea errespetatzea eta hurbileko gauzak zaintzea” gomen-
datu nahi digu Joxebik, “horrela hurrengo belaunaldi baldintza onetan emango diegu **Lurra**”. Bere ahalegi-
na umekin lan egitea da, eta hori Teleskon duen programan lantzen duela ere esaten du. **Bi liburu irakurtzea gomendatzen digu: Jonathan Parritt-en ‘Salvemos la Tierra’, jende ospetsu askoren kolaborazio-az egina, eta ‘50 cosas sencillas que tú puedes hacer para salvar la Tierra’; izan ere, eguneroko gauza txikietatik hastea komeni da, erreziklaitik adibidez.**

• PROGRAMAZIOA •

**6 Astelehena**

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
“Kukaratxa Motel” (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Musikala: “Beethoven-en 9. sinfonia”

7 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
“Beethoven-en 9. sinfonia” (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Atzeretuen Programa Berezia”
22.00etan
“Printzesa ezkongaiak”

8 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
“Printzesa ezkongaiak” (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala: “Landarerria; Nola sor-
tu zen iskrribaketa?”

9 Osteguna

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Juan Luis Biku-
ña
22.00etan
Euskal filmea: “Ander eta Yul”

10 Ostirala

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
“Ander eta Yul” (errep.)
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren filmea: “Arturo Erregea”

• KOMIKIA •

**TXOKO TABERNA**

Gure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

• SOLUZIOAK •

JEROGIFIKOA

Ge.
Uimulu, 11. Bina, 13. Suma, 19.
Sines, 4. In, 5. Anu, 6. Tartean, 7.
Berrikal, 1. Benetan, 2. Ikaran, 3.
18. Magal, 20. Niza, 21. Une.
14. Tm, 15. Tassun, 16. EU, 17. Ar.
9. Lan, 10. NAN, 11. Bura, 12. Eresi.
Horizontalak 1. Bistatu, 8. Ekin.
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Garajea alokatzen da.** Roneo aldean. Tfnoa: 79 36 09.
- **Peñiscolan 6 pertsonentzako bungalowa** alokatzen da ekaina, uztaila eta irailean. Hondartzan bertan dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.
- **Apartamendua alokatzen da** Gasteizko erdialdean. Egongela, 2 logela, sukaldea, bainua, berogailua, kalefakzio zentrala, igogailua. Tfnoa: 79 47 95. Gaez deitu.
- **Donostian uda garaian 2 etxebizitza** alokagai. - Fermin Calbeton kalean: 2 logela eta 4 ohe. - Easo kalean: 2 logela eta 4 ohe. Tfnoak: 42 32 67 edo 42 45 02. Nati. (Bazkalorduan).
- **Bilbon gela bat libre** baduzu, gustora alokatuko nuke. Dei egin 79 14 01 tfnora. Maite. (Gaez).
- **2 ohedun logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokatzen da** San Andres auzoan. Tfnoa: 79 51 88.
- **Etxebizitza alokatzen da** Peñiscolan udako hila-beteetan. Tfnoa: 79 57 31. Juan Antonio. 6.30etatik aurrera.
- **4 ikaslek etxebizitza** alokatu nahi genuke. Tfnoa: 83 34 09. Asteburutan deitu.
- **Pisua salgai.** 140 m2. Gorostiza auzoan. 4 logela, egongela, 2 komun, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.
- **5 lagunentzako pisua** alokatu nahi genuke Arrasaten. Tfnoa: 18 04 23. Harri.
- **Pisu bat osatzeko pertsona bat** behar dugu uztailetik aurrera. Gros. 25.000 pta. Tfnoa: 79 11 10 (gaez edo arratsaldean deitu).

• **Bi logela ditugu** alokatzeko Aldai kalean, erdialdetik oso gertu. Merkeak dira. Tfnoa: 65 52 98.

Lana

- **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke kontabilitate-matematika edo finantza-matematiketako klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Emakume euskalduna** eskaintzen da "interina" gisa ume edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska** eskaintzen da etxebizitzak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **OHOko klase partikularrak ematen ditut** kurtsu guztian zehar eta uztailan goizez eta arratsaldean. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **2. REMeko klase partikularrak** emateko prest dagoen pertsona bat behar dugu. Deitu 79 06 50 tfnora. Agustin.
- **Titulu eta esperientziadun pelukera bat** eskaintzen da lan egiteko. Orduka edo egun osorako. Tfnoa: 79 55 13.
- **Andra euskalduna** prest pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 55 13.
- **2. REM arte klase partikularrak** ematen ditut, ingelese eta matematikak batez ere. Tfnoa: 79 13 01.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira. Irakasle kandiarrak. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.

Salerosketak

- **Argazki kamara salgai.** Automatikoa, 2 objektiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuak dei egin. 79 49 05. Edurne. (60.000 pta.)
- **MINI-CONVER karabana salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 88 83.
- **Txakurrak eramateko gurdia salgai.** Tfnoa: 79 11 36. Iñigo. 8etatik 10etara deitu.
- **FIESTA1.6 Diesela salgai.** Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.
- **Karro-denda bat hartuko genuke** abuzturako. Ondo eta libre badago eta alokatu nahi baduzu, dei egin 77 05 22 tfnora 8etatik aurrera. Ondo zainduko dugu.
- **FORD ESCORTa salgai.** Prezio interesgarria. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.
- **Autoa salgai (AUSTIN METRO HLE).** SS-2888-S. Tfnoa: 77 10 20.

Denetarik

- **Urrezko pultsera galdu** nuen domekan, Eskola Politeknikoa eta Musakolako barraken artean. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.
- **Urrezko belarritakoa** galdu nuen asteartean Uribe auzoko inguruetan. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.
- **Txakur txiki bat** erregalaten dut. Tfnoa: 79 52 80.
- **Larunbat gauean txamarra galdu** nuen Ekaitz taberna inguruan. Tfnoa: 79 127 20.

Aste Gazte

Bekak

- "La Caixa" Fundazioak 1995-96 ikasturterako, atzerrian ikasketak hedatzeko beka: Britaina Handian, Estatu Batuetan, Frantzia eta Alemanian. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: ekainak 30.
- "Saiolan"ek graduatu-ondo koentzako beken deialdia egiten du. Arlo hauetan: zientziak, injinerutza, ekonomiak, enpresa-ikasketak, zuzenbide ikasketak... Diru laguntza: 1.200.000 pta. Epea: ekainak 30.
- "AIE" (artistas interpretes o ejecutantes), musika beka. Musika ikasten edo profesionalak direnei zuzenduak. Prestakuntza edo

musika ikasketak hedatzeko 100 beka eta goi espezializazio ikasketarako 10 beka. Epea: uztailak 1.

Ikastaroak

- "Clown" ikastaroa. Noiz: ekainaren 27tik uztailaren 1era. Orduategia: arratsaldeko 4etatik 8etara. Irakasleak: "Oihulari Clown" taldeko partaideak.

Abentura egonaldiak

- 18- 29 urte bitartekoentzat Diputazioako oporraldi egitaraua: zaldi ibilaldiak, uretako kirolak, belako nabigazioa, ibaian trabesiak, kirol abentura, e.a. Izena emateko epea: ekainak 1-25.

Udako kirol kanpaina

- Ekintza gehienak bi txandatan banatuko dira: 1) ekainaren 27tik uztailaren 8ra; 2) uztailaren 11tik 22ra. Kirol desberdinak: eskalada, espeologia, hipika, urazpiko iharduerak, rafting, kano kajak, 2-5 eguneko ekintzak... Izen ematea: a) lehen txandarako, ekainak 17 baino lehen, b) 2. txandarako, ekainak 30 baino lehen.

Lehiaketak

- "Gazteak Naturan" V. Argazki lehiaketa. Gaia: gazteak naturan. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak; b) 21-35 edozein. Bi modalitate: a) zuri-beltzean; b) koloretan. Epea: urriak 14.


"...au da eskatzen dedana guztiz beharrezkoa dana ezinduentzat atsedena ta gazteentzat lana."

**MARTZELINO MANTEROLA
"MANUEL LEKUONA"
BERTSO-PAPER LEHIAKE-
TAKO 1. SARIA**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

EUSKADI HOBETZERA GOAZ



EAJ
PNV



Josu Jon Imaz






Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu osoa

a, eme... interiores



210.500
Pta

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE